

MONDRAGONeko zenbait erakundek Zientziaren Asteko ospakizunekin bat egingo dute

2008/10/23

Mondragon Unibertsitatea, Garaia Berrikuntza Gunea, Ikerlan Teknologia Zentroa, AOTEK, Fagor Automationen I+G unitatea eta Mondragon Korporazioak zenbait jarduera antolatu dituzte Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Astea ospatzeko.

Erakunde hauek Berrikuntza eta Gizartearen arteko elkarrizketa sustatu nahi dute, berrikuntzaren garapena ahalbidetuko duten baldintza egokiak sortu daitezzen. Horretarako, gizarteak berrikuntza ulertu, onartu eta barneratzea beharrezkoa da, Eusko Jaurkitzako 2010 Lehiakortasun planak zahazten duen bezala.

Hau dela eta, hainbat ekintza antolatu dira azaroaren 10etik 16ra bitartean Garaia Berrikuntza Gunean. Ekintza hauen helburua Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza gizarteratzea da. Ekimen hauen bidez, Arrasate inguruan ikerketan dihardutenek garatzen dituzten jarduera zientifikoak ezagutzeko aukera izango dute bertaratzen direnak.

Hurrengo egunetan zenbait ekintza izango dira Mondragon korporazioaren Zientzia eta Teknologia planaren inguruan, aipagarrienak: Ikerketa teknologiko zentrorra Ikerlan-IK4 bisita gidatuak; Mondragon Unibertsitateko laborategietara bisita gidatuak eta erakustaldiak; Garaia Berrikuntza gunera bisita gidatuak; Mondragon Korporazioko zenbait enpresetara bisita gidatuak.

Gainera, azaroaren 11, 13, 15 eta 16an Garaia ikus-entzunezko aretoan zine zientifikoari buruzko pelikula eta dokumentalak ikusteko aukera egongo da. Azaroaren 11 eta 13an emanaldiak 17:30etatik 20:00etara izango dira. Asteburuan, 15 eta 16an 11:00etatik 13:00etara Garaia ikus-entzunezko aretoan. Gainera, Garaia hurbiltzen direnek "segway" bisita gidatuaz gozatzeko aukera izango dute.

Egitaraua

